

*BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAREN  
BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO  
UZTAILA GIZARTE AURREIKUSPENEKO  
PLAN INDIBIDUALAREN ARAUDIA*

2016ko martxo

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAREN BASKEPENSIONES HORIZONTE  
2025EKO UZTAILA GIZARTE AURREIKUSPENEKO PLAN INDIBIDUALAREN  
ARAUDIA

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. art.- PLANAREN IZENA

Prestazio-araudi honen bidez (“**Araudia**”), BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA izeneko modalitate indibidualeko gizarte-aurreikuspeneko plana (“**Plana**”) integratzen da BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUAL erakundearen barnean (“**BGAE**” edo “**Erakundea**”).

#### 2. art.- ARAUDIAREN XEDEA

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeari atxikita dagoen BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planaren araudiak arautu egiten ditu BGAEren eta planeko bazkide eta onuradunen arteko harremanak, baita haien eskubide eta betebeharrak ere.

#### 3. art.- PLANAREN MODALITATEA

Plana, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundean integratua, **sistema indibiduala** modalitateko plan bat da bazkideen edo atxikitakoen arteko loturari dagokionez; aldiz, hitzartutako ekarpen eta prestazioen araubideari dagokionez, **ekarpen definituko** plan gisa definitzen da. Planak, bermatu gabeko % 10,65eko (UTB % 1,00) errentagarritasun-helburu bat du 2015eko ekainaren 1etik 2025eko uztailaren 30era arte beren ekarpenei eusten dieten bazkideentzat.

#### 4. art.- HASIERA DATA ETA PLANAREN IRAUPENA

Plana Erakundean integratutzat hartzen da, Eusko Jaurlaritzako agintari eskumendunak emandako baimena jaso eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatua izan ondoren.

Planak zehaztu gabeko iraupena izango du.

## II. TITULUA

### BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK

#### I. KAPITULUA

##### MOTAK ETA EZAUGARRIAK

#### 5. art.- BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA EZAUGARRIAK

Erakundearen estatutuen arabera, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAren bazkide-motak dira:

##### A.- Bazkide sustatzailea

Kutxabank SA da bazkide sustatzailea, eta borondate eratzaillez eta hasierako ekarpenak eginez parte hartu du borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde baten sorreran. Gainera, Erakundearen gobernu-organoetan parte hartzen du, haren estatutuek ezarritako moduan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kutxabank SAK Bilbon (Bizkaia) du egoitza, Diego López Haroko Kale Nagusiko 30-32 zenbakietan, eta inskribatuta dago Bizkaiko Merkataritza Erregistroan (5.226. liburukia, 1. folioa eta BI-58.729 orria). A-95.653.077 IFK zenbakia du (“**Bazkide sustatzailea**”).

##### B.- Bazkide arruntak

Bazkide arruntak edo osoak pertsona fisikoak dira, prestazioren bat lor dezaketenak, beraientzat edo beren onuradunentzat, unean-unean indarrean dagoen arautegiaren arabera (“**Bazkide arruntak**”).

Hainbat modalitate daude bazkide arrunten artean:

- Bazkide arrunt aktiboak: beraientzat edo beren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak, beraiek edo hirugarrenek beren izenean eginiko ekarpen ekonomikoen bitartez (“**Bazkide arrunt aktiboak**”).
- Etenaldian dauden bazkide arruntak: bazkide aktiboak izan direnak baina hiru ekitaldi ekonomikotan ekarpenik egin ez dutenak, ez beren kabuz ezta hirugarrenek beren izenean ere (“**Etenaldian dauden bazkide arruntak**”).

- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktiboak izan direnak eta prestazioaren zuzeneko titularrak izatera igaro direnak, subjektu babestu gisa, gertakizuna jazo ondoren (“**Bazkide arrunt pasiboak**”).

Gainera, Erakundeak onuradunak ere izan ditzake. Onuradunak pertsona fisikoak dira, kausatzailearekin duten harremanagatik prestazioaren titular bihurtzen direnak gertakizunaren ondoren (“**Onuradunak**”).

Onuradunen berariazko izendapenik ezean, atxikipen-buletinean edo onuradunen izendapena egiazta lezakeen ondorengo dokumentu batean (zuzenbidean baliozkotzat hartzen dena), honako hauek izango dira onuradunak, lehenetsun-hurrenkeran adieraziak:

- 1) Legez banandu gabeko ezkontidea edo behar bezala eratutako izatezko bikotekidea.
- 2) Leinuzko ondorengoak.
- 3) Aurreko ahaideak.
- 4) Legezko oinordekoak.

## **II. KAPITULUA**

### **SARTZEKO, KIDE IZATEKO ETA BAJA EMATEKO ARAUBIDEA**

#### **6. art.- PLANARI ATXIKITZEA**

Bazkide arrunt izateko, banakako eskaera egin eta gobernu-batzordeak (“**Gobernu-batzordea**”) zehaztutako gutxieneko zenbatekoak ordainduko dira. Araudi honetako arau guztiak onartzea dakar berarekin.

Planari atxikitzeke, banakako eskaera egingo du bazkide arruntak, eta eskaera horretan, Planari aldizka egingo dion ekarpenaren zenbatekoa jasoko da, hala badagokio, eta Gobernu Batzordeak ezar ditzakeen gainerako zehaztapenak. Planari atxikitzea egin ahal izango da KUTXABANK SA Bazkide Sustatzailearen bulegoetan, urruneko jakinarazpenetarako zeinahi prozedura erabiliz, edo Gobernu Batzordeak ezarritako beste edozein modutan.

Bazkideak 2015eko martxoaren 2a eta 2015eko ekainaren 1a artean bakarrik atxiki ahalko zaizkio planari, baita BGAEko Gobernu Batzordeak horretarako ezar ditzakeen beste aldi batzuetan ere.

#### **7. art.- BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN BAJA**

Erakundearen estatutuetan adierazitako arrazoiez gainera, honako arrazoi hauengatik emango zaie baja Bazkide Arruntari eta Onuradunari:

- Heriotzagatik.

- Eskubide ekonomikoak osoki erabiltzeagatik, legez eta arauz ezarritako modu eta baldintzetan.

### **III. KAPITULUA**

#### **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **8. art.- BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAren estatutuetan jasotakoak izango dira. Zehazki:

##### 8.1 Eskubide ekonomikoen mobilizazioak

Bazkide Arruntek eta Onuradunek oso-osorik edo partzialki mobilizatu ahal izango dituzte BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planean dituzten eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundearen beste plan batzuetara. Mobilizazioa plan bermatuetara egiten denean, ahal izanez gero, bere garaian dagokion plan bermatua ezarri ziren arauak beteko dira. Hala, asmo hori jakinaraziko zaio Gobernu Batzordeari, legeak, estatutuek edo arautegiak ezarritako eragozpenak daudenean izan ezik, eta honek, beharrezko neurriak hartuko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko, legez horretarako ezarritako gehienezko epean, jakinarazpena jasotzen den egunetik kontaktzen hasita.

BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planaren Bazkide Arruntek eta Onuradunek beren eskubide ekonomikoak mugitu nahi dituztenean beste borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera, idatziz helaraziko diote eskaera Gobernu Batzordeari, eta bat etorriko da eskaera unean-unean indarrean dagoen araudiarekin. Gobernu Batzordeak, mobilizazio-eskaera gauzatu du, horren aurka legeak, estatutuek edo arautegiak ezarritako eragozpenak daudenean izan ezik, legeak ezarritako gehienezko epean, eskaera-datatik kontaktzen hasita, mobilizazio hori egitea egokia denean.

##### 8.2 Eskubide ekonomikoak aurretiaz erabiltzea (berreskurapen-eskubidea)

Bazkide arruntek aukera izango dute eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partziala aldeztu aurretik erabiltzeko, aurreikuspen-planen eginiko ekarpenen dagozkien eskubideak, baldin eta 10 urtetik gorako antzinatea badute, arautegiak ezarritakoaren arabera eta aintzat hartuta Eusko Jaurlaritzako dagokion agintariak, hala badagokio, zehaztuko dituen irizpideak.

Berreskurapenen ordainketa soil-soilik egin ahal izango da bazkidearen banku-kontu batean eginiko sarrera baten bidez.

### 8.3 Errentagarritasun-helburua

BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planak bermatu gabeko % 10,65eko (UTB % 1,00) errentagarritasun-helburu bat du ezarrita, merkaturatze-aldian eginiko ekarpenei eusten dieten bazkideentzat, errentagarritasun hori lortzeko ezarritako aldia iraungi arte.

Erakundeak 2025eko uztailaren 1a baino lehen gogoraziko dio bazkideari xede den errentagarritasun-aldiaren iraungitze-data hurbil dela, 2025eko uztailaren 17a baino lehen adieraz dezan BGAEn zer planetara traspasatu nahi dituen bere eskubide ekonomikoak.

Xede den errentagarritasun-aldia iraungitzean, eskubide ekonomikoak bazkideak adierazitako planera traspasatuko dira. Bazkideak ezer adieraziko ez balu, Baskepensiones 15era traspasatuko dira. Eskubide ekonomikoen traspasoa bost eguneko epean egingo da, gehienez, xede zen errentagarritasun-aldia iraungi den egunetik zenbatzen hasita, eta, ondoren, plana likidatuko da.

### 8.4 Aldian behingo informazioa

Estatutuen eta aplikagarria den arautegiaren aginduz bazkide arrunteei eta onuraduneei eman behar zaien informazioa eta dokumentazioa gorabehera, honako hau da aipatutakoek aldi behin jasotzeko behar duten gutxieneko informazioa:

1. Eginiko edo jasotako ekarpen eta/edo prestazioen urteko ziurtapena, baita jasandako atxikipenena ere, hala badagokio.
2. Aldi bakoitzean eginiko ekarpenen (zuzenekoak edo egotziak) sei hilekoko ziurtapena, eskubide ekonomikoen balio-aldia amaitzean (eskubiderik balego), eta aldi bakoitzeko prestazioen zenbatekoa. Gainera, kudeaketa-txosten laburtu bat ere jasoko da, bazkideekin harreman telematiko bat dagoenean izan ezik, arautegi aplikagarrian ezartzen den informazioa laburbilduko duena.

Indarrean dagoen arautegiak zehazten duen informazioa baliabide telematikoen bidez jarriko da bazkide arrunten eta onuradunen esku, bazkide arruntak edo onuradunak dokumentu idatzien bidez jaso nahi duela adierazten duenean izan ezik. Gainera, nahi izanez gero, Kutxabank Saren edozein bulegotan edo BGAEn helbide sozialean ere eskatu ahal izango da.

## **III. TITULUA**

### **EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA GERTAKIZUNEN ARAUBIDEA**

#### **9. art.- PLANA FINANTZATZEKO SISTEMA**

**Ekarpn definituko finantza kapitalizazio indibiduala** izango da BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planaren sistema finantzario-aktuariala.

#### **10. art.- EKARPENAK PLANARI**

1. Bazkide arruntek egingo dizkiote Planari ekarpenak.
2. Ekarpnen zenbatekoa bazkide arruntek zehaztuko dute, atxikipen buletinean, eta sarrera dagokion kontu korrontean egiten den eguna izango dute sarrerako balio-data (Kutxabank SAN zabaldua, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALaren alde).
3. Ekarpnen ordainketak egiteko, bide hauek erabiliko dira soil-soilik:
  - Zordunketa bazkidearen (edo arautegiaren arabera haren aldeko ekarpenak egin ditzaketen pertsonen) Gizarte Aurreikuspeneko Planari lotutako banku-kontuan.
  - Banku-transferentzia bazkidearen Gizarte Aurreikuspeneko Planaren kontura.
4. Bazkide arruntek 2015eko martxoaren 2a eta 2015eko ekainaren 1a artean bakarrik egin ahalko dituzte ekarpenak, baita BGAEko Gobernu Batzordeak horretarako ezar ditzakeen beste aldi batzuetan ere.
5. Beste BGAE bateko aurreikuspen-planetako eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planera mobilizatzeak unean uneko indarreko araudiak zehazturiko izaera edukiko du.

#### **11. art.- EKARPENAK ITZULTZEA**

Ekarpnak kobratzeko administrazio-prozesuko akatsen ondorioz, ekarpenak gaizki zorduntzen direnean bazkide arrunten kontuetan, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeak, bazkideek hala eskatuta, gaizki kobratutakoa itzuliko du, zerga-ekitaldi berean.

#### **12. art.- INBERTSIOEN ARAUBIDEA**

Estatutuekin bat etorriz, Planari atxikitako ondarea dagozkion segurtasun-, likidezia- eta errentagarritasun-irizpideen arabera inbertituko da, era honetako Erakundeei aplikatzeko moduko araudiak xedatutako moduan eta zenbatekoan, eta zehazki, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk egikaritzeko modua arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutako eran.

BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planari atxikitako ondarea inbertitzean, kontuan hartuko da beti aurreko paragrafoan ezarritakoa, Gobernu Batzordeak erabakiko dituen eta Inbertsio Printzipio Adierazpenaren bidez bazkideei jakinaraziko zaizkien mugen barnean. Nolanahi ere, bazkide bakoitzak eskubidea izango du bere eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALean integratzen diren plan ezberdinen artean

mobilizatzeko, betiere arautegiak horretarako ezarritako baldintzak beteta, eta plan bermatuen kasuan, haien ezaugarriak errespetatuta.

### **13. art.- PLANAREN PRESTAZIOAK**

Planaren prestazioak (Araudi honen hurrengo artikuluan jasoak) Bazkide Arruntak edo Onuradunak prestazioen ordainketa-datan dituen eskubide ekonomikoen balioari dagozkio.

Ezingo dira eskubide ekonomikoak bahitu, harik eta dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea emango duen gertakizuna jazo arte; eta ezingo da eskubide horietan kenkaririk, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik gauzatu, ezta ezein kontraturen berme gisa erabili ere.

Gertakizuna jazotakoan, bahitura, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak erabakitakoa bete beharko da.

Heriotza kasuan, bahitura, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak erabakitakoa bete beharko da, onuradunei legezkiekeen hondarreko eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik.

### **14. art.- PLANAK ESTALITAKO GERTAKIZUNAK**

Honako hauek dira planak estalitako gertakizunak (prestazioak ordaindu beharra eragiten dutenak):

a) Erretiroa: erretiro-gertakizuna halakotzat joko da bazkide arruntak Gizarte Segurantzaren eta antzekoen araubidean oinarrituta erretiroa hartzen duenean. Erretirotzat hartuko dira, halaber, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta Gizarte Segurantzak onartzen dituen beste hainbat egoera baliokide.

Erretiro-egoerara iristerik ez dagoenean, 60 urte betetzean eskatu ahal izango du prestazioa bazkide arruntak, baldin eta lan-jarduerarik edo jarduera profesionalik egiten ez badu, edo egiteari uzten badio, eta Gizarte Segurantzaren ezein araubidetan erretirorako kotizatzen ez badabil.

Erretiro partzialaren erregimenean sartzen diren bazkideek, eta dagokion prestazioa jaso arren, erabateko erretirorako ekarpenak egin ahalko dituzte.

b) Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna, Gizarte Segurantzaren edo antzekoen edozein araubidetan ezarritakoaren arabera.

Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna izan daiteke: ezintasun iraunkor partziala ohiko lanbiderako; osoa, ohiko lanbiderako; absolutua, era guztietako lanerako; eta baliaezintasun handia. Egoera horiek zehazteko, Gizarte Segurantzaren dagokion araubidea erabiliko da.



Bazkide arruntak ezin badu Gizarte Segurantzaren sistema publikoko lanerako ezintasunari dagokion inolako prestaziorik jaso, lanerako ezintasun-gertakizuntzat joko da, baldin eta ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioei aplikagarria zaien araudiarekin bat etorrira, eskumena duten organo ofizialek edo Erakundeak balorazio-funtzio hori espezifikoki egotzen dion organoak erabakitzen badute aipatutako araudian jasotako baremoen arabera % 33tik gorako ezgaitasun-maila edo gaixotasun kronikoa duela.

c) Heriotza. Bazkide arruntaren heriotzak alarguntasun- edo zurtzasun-prestazioetarako eskubidea sor dezake, baita beste onuradun batzuen aldeko prestazioak ere. Onuradunak, dokumentu fedemaileen bidez hala dela egiaztatzen duenean, aukera hauek izango ditu:

- Erakundearen bazkide gisa sartzea, dagozkion eskubideekin.
- Eskubide horiek berak adierazitako entitatera mugitzea.
- Eskubideak eskuratzea, osorik edo partzialki, bazkide arruntaren heriotzagatiko prestazio gisa.

d) Mendekotasuna: adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sensoriala galtzen dutenez, beste pertsonen etenik gabeko laguntza behar duten pertsonen egoera da; edo laguntza handiak behar dituzte, eguneroko oinarrizko zereginetarako, edota, ezgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, beste laguntza batzuk behar dituzte beren autonomia pertsonalerako. Gertakizun hau bat etorriko da mendekotasun larriarekin edo mendekotasun handiarekin, mendekotasunari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

e) Iraupen luzeko langabezia: lana galdu edo jarduera eten duten (langile autonomoen kasuan) pertsonak; betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

- (i) Legez langabezia-egoeran egotea. Ondorio horietarako, lan-harremanaren edo harreman administratiboaren amaitze-kasuak hartuko dira aintzat, bai eta lan-kontratuaren etenak ere. Guztiak Gizarte Segurantzaren legedian aurreikusi bezalaxe.
- (ii) Ordaindutakoaren arabera langabeziagatiko prestazioetarako eskubiderik ez izatea, edo hala badagokio, urtebetean kobratu izana, prestazioa aurretik amaitu den kasuetan izan ezik. Urtearen zenbaketa egiaztatu ahal izango da nahiz eta langabeziako 12 hilabeteak ez izan jarraian.
- (iii) Eskaera egitean enplegu publikoaren dagokion zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda edukitzea.
- (iv) Aurretiaz Gizarte Segurantzaren araubidean integratuta egon diren eta orain jarduera etenda duten norberaren konturako langileen kasuan ere prestazioa jaso ahalko da, arestian aipatutako (ii) eta (iii) ataletan xedatutako baldintzak betetzen badira.
- (v) Prestazioa hilabeteko errenta moduan ordainduko da, non eta Bazkide Arruntak ez duen ordainketa bakarrean egiteko eskatzen, enplegua sustatzeko helburu zehatz batzuekin. Hilabeteko errenta baliokidea zehazteko, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Ordaindutakoaren arabera langabeziagatiko prestazio publikoa jasoz gero, errenta baliokide maximoa ordaindutakoaren arabera jasotako prestazioaren parekoa izango da, hasierako zenbateko gordin berekoa.
- Ordaindutakoaren arabera prestazioan jasotako zenbatekoa murriztuz gero, murrizketa hori orekatu ahal izango da egindako murrizketaren gehieneko zenbateko bereko prestazio osagarri bat emanez.
- Ordaindutakoaren arabera prestaziorako eskubiderik izan ezean, sistema publikoan ordaindutako kotizazioak aintzat hartuta kalkulatu da gehieneko prestazio baliokidea, bai eta ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen direla aintzat hartuta ere.

f) Gaixotasun larria: Bazkide Arruntari bere ohiko jarduera edo zeregina gauzatzea gutxienez hiru hilabeteko denboraldi jarraituan galarazten dion zeinahi gaitz fisiko zein mental edo lesio, edo bazkidearen, ezkontidearen, izatezko bikotearen, lehen mailako aurreko ahaideen zein ondorengoen edo babesean zein harreran Bazkide Arruntarekin bizi den edo haren menpekota den pertsonaren kirurgia handiko esku-hartze klinikoa edo ospitaleko tratamendua eskatzen duen gaitza.

Aurreko kasuak gaixotasun larritzat joko dira, baldin eta Bazkide Arruntak ez badu horregatik baliaezintasun iraunkorragatiko ezein mailako prestaziorik jasotzen, Gizarte Segurantzaren araubidearen arabera, eta betiere, bazkideak erabilgarri duen errentaren gutxitzea badakar, gastuak handitu direlako edo diru-sarrerak murriztu direlako, modu egokian egiaztatuta. Ondorio horietarako, gastuen aurrekontuak aurkeztu ahal izango dira.

Prestazio-eskaerak BASKEPENSIONES BGAE INDIVIDUALARI egingo zaizkio idatziz, dagokion egoera ziurtatzen duten egiaztagiriekin batera.

## **15. art.- PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODALITATEA**

1. Bazkide arruntei eta onuradunei prestazioa jasotzeko duten eskubidea aitortzen zaienean (jada aipatu diren gertakizunak jazo direnean), ordainketa-era kapital moduan izango da, eta haren zenbatekoa izango da bazkideak prestazioa ordaintzeko unean dituen eskubide ekonomikoen balioa.

Gaixotasun larriagatiko prestazioa kapital moduan egingo da, eta ez da izango gaixotasunak eragindako sarrera-gutxitzeak edo gastu-handitzeak eragindako zenbatekoa baino handiagoa, ezta bazkide arruntaren eskubide ekonomikoen balioa baino handiagoa ere.

Iraupen luzeko langabeziagatiko prestazioa hileko errenta gisa emango da, honako Araudi honetan aurreikusitako baldintzetan, non eta Bazkide Arruntak ez duen eskatzen ordainketa bakarrean egiteko, enplegua sustatzeko helburu zehatz batzuekin.

Prestazioen ordainketa, kapitalean edo errentan, soil-soilik egingo da dagokion sarrera eginez bazkidearen edo onuradunen banku-kontuan.

2. Bazkideak idatziz aurkeztuko du prestazio-eskaera.

#### **16. art.- PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO PROZEDURA ETA AITORPENA**

1. Prestazioa eragiten duen gertakizuna jazotzen denean, prestazioa jaso nahi duen Bazkide Arruntak edo/eta Onuradunak hori jakinaraziko dio BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALARI, eta behar den informazioa eta prestaziorako eskubidea duela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko du.

2. BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeak dokumentazio hori aztertuko du, eta beharrezkoa irizten dion datu guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. Eskera eta sinestamendu guztiak Entitatean aurkeztu eta bost egun balioduneko gehieneko epean ordainduko ditu BGAEk prestazioak. Gertakizuna Bazkide Arrunt baten heriotza bada, ordea, epe hori onuraduna nor izango den zehazten denean irekiko da.

4. Bazkideek edo Onuradunek egin nahi duten erreklamazio orotarako, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeak Gobernu Batzordearengana edo bazkidearen defendatzailearengana joko dute, erakundearen estatutuetan jasota dagoen moduan. Hurrengo bilerako aztergaien zerrendan sartuko da erreklamazioa. Hartutako erabakia erreklamatzailerari jakinaraziko zaio.

#### **17. art.- ERRENTAGARRITASUN HELBURUA**

BASKEPENSIONES HORIZONTE 2025EKO UZTAILA planak bermatu gabeko % 10,65eko (UTB % 1,00) errentagarritasun-helburu bat du ezarrita, merkaturatze-aldian eginiko ekarpenei eusten dieten bazkideentzat, errentagarritasun hori lortzeko ezarritako aldia iraungi arte.

### **IV. TITULUA**

#### **ADMINISTRAZIO GASTUAK**

#### **18. art.- ADMINISTRAZIO GASTUAK**

Planaren administrazio-gastuak araudi aplikagarrian ezarritakoren arabera izango dira. % 0,52koak izango dira, eta hari atxikitako ondarearen arabera kalkulatu dira. Gastuen ehuneko hori % 0,00an ezarrita geratu zen merkaturatze-aldian zehar (2015eko ekainaren 1ean amaitu zen aldi hori).

Ondorio horietarako, administrazio-gastutzat hartuko dira Planari atxikitako ondarearen administrazio-lanetan sortzen diren zuzeneko zein zeharkako gastu guztiak; balioen salerosketatik eratorritako bitartekaritza-gastuak, ordea, ez.

## **V. TITULUA**

### **ARAUDIA ALDATZEA**

#### **19. art.- ARAUDIA ALDATZEA**

Araudi hau aldatu ahal izango da Entitatearen Gobernu Batzordeak proposatzen eta onartzen badu, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzari aurkezten bazaio eta hark onartzen eta erregistratzen badu.

## **VI. TITULUA**

### **GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA**

#### **20. art.- GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

Bazkide Arruntak, Onuradunak edo pertsona eskubidedunek legez onartutako beren interes eta eskubideekin zerikusia duten kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu Batzordean edo bazkidearen defendatzailearen aurrean, norberak aukeratuta.

Gobernu Batzordeak, hala badagokio, Erakundearen zuzendaritzaren esku utz dezake ebazteko lana, edo hala badagokio, bertan zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoen esku.

Bazkidearen defendatzaileak gehienez ere 15 eguneko epean ebatziko ditu aurkezten dizkieten erreklamazio guztiak, berezkoa duen prozedura-araudiaren arabera. Eta defendatzailearen aldeko erabakiak lotesleak izango dira Erakundearentzat.

Bazkidearen edo gobernu-batzordearen defendatzailearen erabakia ez da oztopo izango erabateko tutoretza judizialerako eta ez administrazio-kontrolerako eta -berrikuspeneko funtzioen erabilerarako.

Nolanahi ere den, kexa edo erreklamazioa Batzar Nagusian edo Gobernu Batzordean erabaki bat hartzeko arrazoi bada, Erakundearen estatutuaren xedatutakoa aplikatuko da.

## **VII. TITULUA**

## **PLANA IRAUNGITZEKO ARRAZOTIAK ETA ONDAREAREN ERABILERA**

### **21. art.- PLANA IRAUNGITZEA**

Plana iraungitzeko arrazoia arautegi honetan ezarritako xede den errentagarritasun-aldia amaitzea izango da.

Plana iraungitzen den unean, bazkideak adierazten duena egingo da eskubide ekonomikoekin. Hark ez balu ezer esango, Baskepensiones 15era traspasatuko dira.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Arautegi hau BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALaren estatutuetan txertatuko da eta haien zati izango da.